



Esp.kodea: 2012ZTXU0003

Gaia: Sanjuanetako kalez kaleko salmenta
Hasiera eguna: 2012/03/23

ZIURTAGIRIA

IÑIGO GARITANO LARRAÑAGA JAUNA, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“2012ko San Juan jaietan kaleko salmenten baimenak emateko prozedura arautuko duen baldintza agiria onartzeko proposatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Obrak, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak Batzordearen diktamena ezagututa, hauxe erabaki du:

“Udalaren Zerbitzu Teknikoek eta Udaltzaingoak San Juan jaietan kalez kaleko salmentarako baimenak emateko prozedura administratiboa arautuko duen Plegua aurkeztu eta ontzat ematea proposatu dute.

Pleguaren ezaugarri nagusien berri ematen da Udalaren Zerbitzu Teknikoek eta Udaltzaingoak aurkezturiko txostenean, besteak beste:

- a) Aurkeztu den prozedurak urteetan zehar Arrasateko kaleetan eman izan den aktibitatea erregularizatzea nahi duela.
- b) Helburua: Arrasateko Udalak administrazio prozedura deitu du “edozeinek erabiltzeko jarduera berezi”ko lizentziak emateko; lizentzia horiek gaitzen dute bide publikoan (Garibai-Kontzezino aldean) jartzea kaleko saltokiak Sanjuanetan. (3 m x 1 m) 3 metro linealeko espazioak erabiltzeko lizentziak emango dira. Gehienez ere pertsona bati emango diogu lizentzia, elkarren segidako 3 m-ko 3 espazio erabiltzeko, eta 125 izango dira Udalak emango dituen 3 m-ko espazioak.
- c) Iraupena: 2012/06/22tik (16:00etatik aurrera) eta 2012/06/26 artean (egun osoan).
- d) Lizitazioa: Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 77. artikuluan xedatutakoaren arabera, 1372/1986 Errege Dekretua, jabetza publikoko ondasunen “edozeinek erabiltzeko jarduera berezia”ri dagokionez, lizentziak emango dira zozketa eginez.
- e) Prezioak: 2012. urteko Ordenantza Fiskalak jasotakoak, besteak beste, San Juan jaiei dagozkien egun guztietarako 29,21 €/m².

Esp.kodea: 2012ZTXU0003

Gaia: Sanjuanetako kalez kaleko salmenta
Hasiera eguna: 2012/03/23

Aipaturiko guztia aztertu ondoren, hauxe proposatu du Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak:

1.- Ontzat ematea San Juan jaietan kalez kaleko (Garibai-Kontzezino aldean) salmentarako baimenak emateko prozedura administratiboa arautuko duen Plegua.

2.- Aipatu den prozeduraren lizitazio iragarkiak argitaratzea.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2012ko martxoaren 27a.

O.E.

ALKATEA

